

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/4/111

Izenburua: NAFARROAKO HIRI JABETZAKO GANBERA OFIZIALA

Datak: 1933-1997

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 490 instalazio unitate

Sortzailea: NAFARROAKO HIRI JABETZAKO GANBERA OFIZIALA

Erakundearen historia:

Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialak 1907ko ekainaren 16ko Errege Dekretuaren bidez sortu ziren, hiri jabetzaren interesak defendatzeko eta sustatzeko. 1927ko maiatzaren 6ko Errege Lege Dekretuaren bidez, Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialen Erregelamendu Organikoa onartu zen. Horren bidez, hiri-finken jabe guztien nahitaezko kolegiazioa ezarri zen —lurralde izaerako korporazioetan bilduta—, haien interes zilegiak defendatzeko eta botere publikoarekiko harremanak bideratzeko.

1927ko Dekretua indargabetzen zuen 1950eko otsailaren 10eko Dekretuaren bidez, Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialen Erregelamendu Organikoa onartu zen berriz ere. Hori egiteko arrazoia izan zen aitzineko Erregelamendua aldatzeko xedapen ugari onartu zirela urte horietan, eta horrek garrantzi handi samarreko legeria gehigarria sortu zuela. Bertan esaten denez, ganberak korporazio ofizialak ziren, eta nortasun juridiko osoa zuten beren helburuak betetzeko. Bere misioa izan zen aberastasun nazionalaren arlo hori defendatzea, sustatzea eta ordezkatzeko; Administrazioari, Botere Publikoei eta beste edozein erakunde ofizial aholkua ematea, hiri jabetzan egiten ziren arlo guztietako jarduketa guztietan; hiri jabetzaren aldeko gizarte lanak egitea eta zerbitzuak ezartzea; eta, oro har, Gobernuaren ekimenekin bat egitea, hiri jabetzari eragiten zioten heinean. Lan Ministerioaren mende zeuden zuzenean, Idazkariordetzaren bitartez.

Beren jurisdikzioko lurraldean kokatutako hiri finken jabeek jabetza ganberak osatuko zituzten: horretarako elkartu egin beharko zuten, nahitaez. Ganberak ematen zituzten dokumentuak publikotzat joko ziren.

Ekainaren 2ko 1649/1977 Errege Dekretuaren bidez, Jabetza Ganberaren erregelamendu proiektua onartu zen, eta aitzinekoa (1950ekoa) indargabetu. Erregelamendu berri horren bidez, Ganberak Administrazioarekin lotu ziren organikoki, Etxebizitza Ministerioaren bitartez —Ministerio horri zegokion goi ikuskaritza eta haien funtzionamendua kontrolatzea—.

Ekainaren 19ko 1119/1985 Errege Dekretuaren bidez, Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialen arloan Estatuko Administrazioak zituen eginkizunak eta zerbitzuak.

Uztailaren 26ko 246/1993 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Hiri Jabetzako Ganberaren Erregelamendua onetsi zen.

1990erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 28ko 4/1990 Legearen azken xedapenetako hamargarrenak ezabatu egin zituen, zuzenbide publikoko korporazio gisa, Hiri Jabetzako Ganbera Ofizialak eta haien Kontseilu Gorena. Aldi berean, Gobernuari ahalmena eman zion Errege Dekretu bidez Estatuaren tutoretzapeko ganberaren ondarearen eta langileen araubidea eta norakoa ezartzeko. Xedapen horri konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa jarri zioten Galiziako Autonomia Erkidegoko Gobernuak eta Alderdi Popularreko Talde Parlamentarioko 78 diputatuk. Konstituzio Auzitegiak, 1994ko ekainaren 20ko epaian, xedapen horren konstituzio-kontrakotasuna, eta, ondorioz, deuseztasuna deklaratu zituen, Konstituzioaren 134.2 artikulua urratzeagatik. Izan ere, haren iritziz, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea ez zen esparru egokia errekurtsogileek zalantzan jarritako araudiaren modukorik sartzeko.

Konstituzio Auzitegiaren epaia eman ondotik, abuztuaren 5eko 8/1994 Errege Lege Dekretuaren bidez Hiri Jabetzaren Ganbera Ofizialak eta haien Kontseilu Nagusia ezabatu ziren, zuzenbide publikoko korporazio gisa, eta haien ondarearen araubidea eta xedea arautu ziren.

Apirilaren 15eko 178/1996 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Hiri Jabetzako Ganbera ezabatu zen eta bertako langileen eta ondarearen araubideari eta norakoari buruzko neurriak hartu ziren.

Funtsaren antolamendua:

111.01 GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA

- 111.01.01 Aurrekariak eta Ganbararen eraketa
- 111.01.02 Gobernu Batzarrerako hauteskundeak
- 111.01.03 Batzarraren aktak
- 111.01.04 Memoriak eta estatistikak
- 111.01.05 Afiliatutako jabeen errolda
- 111.01.06 Azterlanak eta txostenak
- 111.01.07 Korrespondentzia, zirkularrak eta ziurtagiriak
- 111.01.08 Dokumentu erregistratzea
- 111.01.09 Hitzarmenak eta beste erakunde batzuetan parte hartzea
- 111.04.01.10 Autonomia erkidegoetako lantaldeak

111.02 LEGEDIA ETA ARAUDIA

- 111.02.02 Lege txosten eta zuzenketak
- 111.02.01 Araudia

111.03 BALIABIDE EKONOMIKOEN KUDEAKETA

- 111.03.01 Aurrekontuak
- 111.03.02 Kontabilitatea

111.04 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA

- 111.04.01 Plantilla organikoak
- 111.04.02 Lanpostuak betetzea eta kontratuak
- 111.04.03 Nominak eta aurreikuspen soziala
- 111.04.04 Prestakuntza eta hobekuntza

111.05 ONDASUN HIGIGARRIEN ETA HIGIEZINEN KUDEAKETA

- 111.05.01 Eskuratzeko eta kontserbazioa
- 111.05.02 Ondasunen inbentarioa

111.06 FINKEN KUDEAKETA

- 111.06.01 Finkak alokatzeko kontratuak
- 111.06.02 Kontratazioak, nominak eta aurreikuspen soziala
- 111.06.03 Finken administrazioa
- 111.06.04 Alokairuen likidazioa
- 111.06.05 Fidantzen kudeaketa
- 111.06.06 Alokairu kontratuen ezerezteak
- 111.06.07 Alokairuez salbuesteko akordioak

111.07. FINKEN BALORAZIOA

- 111.07.01 Balorazioko txostenak

111.08 AFILIATUEN LAGUNTZA JURIDIKOA

- 111.08.01 Espediente juridikoak
- 111.08.02 Adiskidetze eta arbitraje ekintzak
- 111.08.03 Aholkularitza juridikoa
- 111.08.04 Erreklamazioak eta errekurtsioak

111.09 AFILIATUEI EMANDAKO KREDITUEN KUDEAKETA

- 111.09.01 Emandako interes baxuko maileguak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.